



## UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2014KO EKAINAREN 2A)

### 1. ARIKETA: AUKERA ANITZEKO GALDERAK

Honako galdera hauetako bakoitzak lau erantzun ditu aukeran. Aukeratu ezazu erantzun zuzen eta egokiena, eta idatz ezazu ariketa honen amaieran (8. orrialdean) dagoen erantzuntaulan erantzun horri dagokion letra. Erantzun okerrengeatik ez da punturik kenduko.

1. *Gizon bura ere \_\_\_\_\_ bilakatu zen oihanean.*
  - a) otsoan
  - b) otsotzat
  - c) otsoa
  - d) otso
  
2. *Behin eta berriaz agindu dizut \_\_\_\_\_*
  - a) isilik egon!
  - b) isilik egon zaitez.
  - c) isilik egoten.
  - d) isilik egoteko.
  
3. *Emakumea triste samar sartu zen komisarian, \_\_\_\_\_ .*
  - a) bai eta adierazi ere lapurra bera zela
  - b) eta adierazi zuen ere bai lapurra bera zela
  - c) eta lapurra bera zela adierazi zuen ere
  - d) eta lapurra bera zela adierazi zuen, ere bai
  
4. Zein da egokiena?
  - a) Bai aspergarria zen nire bizitza!
  - b) Nolako aspergarria zen nire bizitza!
  - c) Bai zela aspergarria nire bizitza!
  - d) Bai zen aspergarria nire bizitza!
  
5. \_\_\_\_\_ *konfiantza galtzerik nahi ez baduzu, esaiozu dakizun guztia.*
  - a) Zuregana
  - b) Zureganako
  - c) Zurenganako
  - d) Zuri buruzko
  
6. *Nekane eta Mikel \_\_\_\_\_ eginak daude.*
  - a) elkar
  - b) elkarrenganako
  - c) elkarrentzat
  - d) elkarrengaino
  
7. *Noiz etorriko zara? \_\_\_\_\_ .*
  - a) Datorren urteaz
  - b) Datorren urtean
  - c) Datorren urtea
  - d) Datorren urtez



## UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2014KO EKAINAREN 2A)

8. Zein da zuzena?

- a) Zazi artean galdu nuen saskia ahizparena zen.
- b) Sasi artean galdu nuen zaskia aizparena zen.
- c) Sasi artean galdu nuen saskia ahizparena zen.
- d) Sazi artean galdu nuen zaskia aizparena zen.

9. Zein da zuzena letra larrien erabilerari dagokionez?

- a) Euskal Herriko Unibertsitateko fakultate guztietan zabaldu ziren zurrumurruak.
- b) Gasteizen dago Eusko jaurlaritzaren egoitza.
- c) Ni ez naiz Elizara joaten.
- d) Bi erabaki hartu zituen Donostiako udalak.

10. Zeinek du puntuazio egokia?

- a) Zer ordutan etorriko zaren? galdetu dizut.
- b) Ez esan gero, horrelakorik: bestela!
- c) Gustatu zait; nolana ere, luzeegia iruditu zait *Martutene*.
- d) Bilborako, autobusa mesedez?

11. Zer da *iaioa*?

- a) Ahozuria, mokofina.
- b) Trebea, gaitua.
- c) Moldakaitza, taxugabea.
- d) Arlotea, petrala.

12. *Ez nuen balakorik esan gura, baina hitz itsusi haiek nabi gabe* \_\_\_\_\_.

- a) itzuri zitzaizkidan
- b) aldendu zitzaizkidan
- c) itzulia egin zidaten
- d) bihurtu zitzaizkidan

13. Alkatea zein erakundetako ordezkari nagusia da?

- a) Foru Aldundikoa.
- b) Udaletxekoa.
- c) Biltzar Nagusietakoa.
- d) Udalekoa.

14. Zein da zuzena?

- a) 2014ko maiatzak 11an, 15,00-etan
- b) 2014ko maiatzaren 11n, 15:00etan
- c) 2014ko maiatzaren 11ean, 15,00n
- d) 2014ko maiatzak 11, 15:00etan

15. Aukeratu ezazu zuzena.

- a) Behin eta berriro eskatuagatik, ez dizu baimenik emanen.
- b) Autopsiak agertu zuen zergatia: "Pozioia hartuagatik hil zen".
- c) Guk hainbeste saiatarren ez zenituzten ikasketak bukatu.
- d) Horregatik galdu duzu trena, berandu ailegatu arren.



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK  
(2014KO EKAINAREN 2A)**

16. Aukeratu ezazu zuzena.

- a) Gaixo antzean omen dabil azkeneko boladan.
- b) Ez dakite ezer gai horren buruz.
- c) Horiek ere beste bizkar uzten dute lana.
- d) Gaur Barriolak aurka Xala jokatu du partida.

17. Zein da zuzena?

- a) Nire motoa zurea bezala da.
- b) Nire motoa zurea bezalatsu da.
- c) Nire motoak zurearen antza du.
- d) Nire motoa zurearen bezalakoa da.

18. Aukeratu ezazu zuzena.

- a) Asun menditik zetorrela erori zen.
- b) Asun, menditik zetorrela, nire laguna da.
- c) Asunek, menditik zetorrena, ez ninduen agurtu.
- d) Asun, agurtu ninduenak, menditik zetorren.

19. Zein dago **oker** idatzita euskara batuan?

- a) Clint Eastwooden pelikuletaz hitz egin dugu.
- b) Clint Eastwooden pelikulei buruz hitz egin dugu.
- c) Clint Eastwooden pelikulez hitz egin dugu.
- d) Clint Eastwooden pelikulen gainean hitz egin dugu.

20. Zein aukeratuko zenuke euskara batuan emateko?

- a) Ilusino bat baleza!
- b) Ilusioirik balu!
- c) Ilusione bat baleuka!
- d) Ilusiorik balu!

21. Aukeratu ezazu zuzena.

- a) Beti uste izan dut parapentean ibiltzea eginahal haundia eskatzen duela.
- b) Bizikletan ibiltzea oso gogorra dela iruditzen zait.
- c) Boxeoan ukabilkadak hartzea ez dakarkio ondorio onik gorputzari.
- d) Edozein kiroletan aritzeak ez dakit onuragarria ote den.

22. *Nagusiak erabateko konfiantza dauka \_\_\_\_\_ . Ez du beste inor hartu.*

- a) zuregatik
- b) zugan
- c) zutan
- d) zutaz

23. *Zabarrak ez digu balio eta bide berriak \_\_\_\_\_ beharke ditugu.*

- a) lekutu
- b) kokatu
- c) urratu
- d) ernegatu



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK  
(2014KO EKAINAREN 2A)**

24. Zein da *hesi* hitzaren esanahia?

- a) Itzaropena galdu.
- b) Lur-eremu bat ixten edo babesten duena.
- c) Gizartean bizitzeko prestatu eta gaitu.
- d) Handituz joan.

25. Zein dago **oker**?

- a) Itziar Jonen arreba da.
- b) Ainhoa eta Mikel neba-arrebak dira.
- c) Neska horren arreba da Maria.
- d) Neska horiek ahizpak dira.

26. Zein dago **oker** idatzita euskara batuan?

- a) Ongi eskatu ezker emanen dizu.
- b) Ez gaude pozik, berandu ailegatu baikara.
- c) Atezainak kanpoan itxaronarazi dit.
- d) Zuek biok izan ezik, gainerakoak han ziren.

27. *Gurean \_\_\_\_\_, auzoan \_\_\_\_\_ izaten dira gatazkek.*

- a) ez ezik / ere
- b) ezik / bai
- c) aldiz / ere bai
- d) ezik / ere

28. *Inguruan borrelako bortizkeria basatia \_\_\_\_\_ ikaratu egiten \_\_\_\_\_ .*

- a) sumatuagatik / naiz
- b) sumatzea / nau
- c) sumatzeak / nau
- d) sumatzen / naiz

29. Aukeratu ezazu egokiena.

- a) Atzo, greba zela eta, hiru ikasle baino ez ziren etorri eskolara.
- b) Atzo greba izan zen, baino hiru ikasle etorri ziren eskolara.
- c) Atzo, greba zela eta, ez ziren eskolara hiru ikasle baina etorri.
- d) Atzo greba zen, hiru ikasle baino etorri ziren eskolara.

30. Zein da egokiena?

- a) Osasunako jokalariek gol berri bat sartu dute.
- b) Afal berriak gara.
- c) Guk lanak bukatu ditugu; berriz, zuek ez.
- d) Aspaldi ez dugu izan Ameriketara joan zen lagunaren berririk.

31. \_\_\_\_\_ abiatu ziren bizikletan eta \_\_\_\_\_ iritsi.

- a) Bizkairuntza / Durangoraino
- b) Bizkairantz / Durangoraino
- c) Bizkairuntza / Durangora arte
- d) Bizkaiaruntz / Durango arte



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK  
(2014KO EKAINAREN 2A)**

32. Hurrengoetatik zein da zuzena euskara batuan?
- Ehiztari batzuk hil zuten basurdea.
  - Ehiztari batzuek hil zuten basurdea.
  - Ehiztari batzuk hil zioten basurdeari.
  - Ehiztari batzu hil zuten basurdea.
33. *Oso nekatuta zegoen eta bazkalondoan \_\_\_\_\_ .*
- loa hartu zen
  - loa hartu zuen
  - loak hartu zuen
  - loak hartu zituen
34. *Zoaz zu nahi baduzue; ni \_\_\_\_\_ ez naitz joango.*
- behinik behin
  - behinik-behin
  - behinipehin
  - behinibehin
35. Zein da zuzena?
- Liburu horren boskarren horrialdean dator.
  - Ziur egon zaitezke: horra aurkeztea onuragarria izango da zuretzat.
  - Gauregungo experimentu asko kontrolik gabe egiten dira.
  - Miloiak eta miloiak ordaindu omen zituzten fabrika berreskuratzeko.
36. Zein da zuzena euskara batuan?
- Ariketa hoiak oso zailak dira.
  - Zergaitik ez da etorri?
  - Polita da, baino oso garestia.
  - Gizon hark ez ei daki ezer.
37. *Ministroak dio bera ez dela arazo hori argitzeko giltzarria. Zer adierazi nahi du?*
- Norbaitentzat izatekotan, berarentzat dela posible arazoa argitzea.
  - Ez dagoela bere esku arazo hori argitzea.
  - Bere burua gai ikusten duela arazo hori argitzeko.
  - Arazoaren argitzea irekita dagoela guztientzat, ministroarentzat izan ezik.
38. *Emakumeak musuzapia atera eta zintz egin du. Zer esan nahi du?*
- Mukiak ozenki eta indarrez egotzi ditu.
  - Dantza egin du.
  - Aurpegia igurtzi du.
  - Diosal-keinu bat egin du musuzapiaz.



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK  
(2014KO EKAINAREN 2A)**

39. Idazkerari dagokionez, zein da zuzena?

- a) Alderdi bat urruti dagoela esaten dugunean, nondik dago urruti? “Nor bere ardatzetik” da erantzun bidezkoena.
- b) Alderdi bat, urruti dagoela esaten dugunean nondik dago urruti? “Nor bere ardatzetik” da erantzun bidezkoena.
- c) Alderdi bat urruti dagoela esaten dugunean nondik dago urruti? Nor bere ardatzetik da erantzun bidezkoena.
- d) Alderdi bat urruti dagoela esaten dugunean; nondik dago urruti? “Nor bere ardatzetik”, da erantzun bidezkoena.

40. Zuzena aukeratu:

- a) XIX. Mendeko autore batena da *Parnasorako bidea*.
- b) XIX. mendeko autore batena da: *Parnasorako bidea*.
- c) XIX-garren mendeko autore batena da *Parnasorako bidea*.
- d) XIX. mendeko autore batena da *Parnasorako bidea*.

41. *Polizjak hil du mutil hori. Honenbestez, \_\_\_\_\_.*

- a) mutil hori poliziagandik hildakoa da
- b) mutil hori poliziaz hildakoa da
- c) mutil hori poliziagatik hildakoa da
- d) mutil hori poliziak hildakoa da

42. *Lehen soldata jasotzeaz \_\_\_\_\_ liburutan xabutzera erabaki du.*

- a) bezain azkar
- b) gero
- c) berehala
- d) bat

43. *Aurrekontuaren araberako egitaraua. Zer adierazten du sintagma horrek?*

- a) Egin ahala burutuko dela kontua.
- b) Nolako diru kopurua izan, halako egitaraua gauzatuko dela.
- c) Irabazi ahala egingo direla arauak.
- d) Arauak egiteko alde aurretiko diru kopuru trinkoa dagoela.

44. Zein da zuzena?

- a) Beste edozein lekuetan bezala, hemen ere ondo.
- b) Bai, han famili batekin egon nintzen ere.
- c) Egun horretan irakaskuntzan dihardutenak jaia izaten dute.
- d) Bada jende asko programa hori atsegin duena.

45. \_\_\_\_\_ oso kezkatuta etorri da.

- a) Medikuarenetik
- b) Medikuarengandik
- c) Medikunetik
- d) Medikuagandik

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK  
(2014KO EKAINAREN 2A)**

46. Nola idazten da 1763?

- a) Mila zazpireun eta hirurogei eta hiru
- b) Mila zazpiehunda hirurogeita hiru
- c) Mila zazpiehun eta hirurogeita hiru
- d) Mila zazpirehun eta hirurogeita hiru

47. Hitz multzo hauetan, zein dago ongi?

- a) Hurrengoa, hurrun, hirria, horria.
- b) Urrengoa, urrun, hirria, horria.
- c) Hurrengoa, urrun, hirria, orria.
- d) Hurrengoa, urrun, irria, orria.

48. Zein da zuzena?

- a) Ballara hau oso mendittua da.
- b) Bailara hau oso mendixua da.
- c) Bailara hau oso mendizua da.
- d) Bailara hau oso menditsua da.

49. *Zu \_\_\_\_\_, \_\_\_\_\_ kasurik egingo.*

- a) ez ba zatoz / ez digute
- b) ez bazatoz / ez digute
- c) ezpazatoz / ez digute
- d) ez bazatoz / eztigute

50. Zein da zuzena?

- a) Jose Luis Alvarez Enparantza: «Txillardegia» izengoitiz, 1929-an jaio zen.
- b) Jose Luis Alvarez Enparantza («Txillardegia» izengoitiz) 1929ean jaio zen.
- c) Jose Luis Alvarez Enparantza, «Txillardegia» izengoitiz, 1929an jaio zen.
- d) Jose Luis Alvarez Enparantza, «Txillardegia» izengoitiz, 1929.an jaio zen.

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK  
(2014KO EKAINAREN 2A)****ERANTZUN-TAULA**

|    |    |    |    |    |
|----|----|----|----|----|
| 1  | 11 | 21 | 31 | 41 |
| 2  | 12 | 22 | 32 | 42 |
| 3  | 13 | 23 | 33 | 43 |
| 4  | 14 | 24 | 34 | 44 |
| 5  | 15 | 25 | 35 | 45 |
| 6  | 16 | 26 | 36 | 46 |
| 7  | 17 | 27 | 37 | 47 |
| 8  | 18 | 28 | 38 | 48 |
| 9  | 19 | 29 | 39 | 49 |
| 10 | 20 | 30 | 40 | 50 |





## UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2014KO EKAINAREN 2A)

### 2. ARIKETA: IRAKURRIAREN ULERMENA

Irakur itzazu ondoko orrietako hiru testuak. Testu bakoitzaren amaieran, hari buruzko galdera batzuk dituzu, aukeran erantzun batzuk dituztenak. Aukeratu ezazu galdera bakoitzeko erantzun zuzen bakarra eta adieraz ezazu amaieran (13. orrialdean) dagoen erantzun-taulan erantzun zuzenari dagokion letra. Ez da punturik kenduko erantzun okerrengatik.

### 1. TESTUA

#### Neska bila

Irakurri nuenean *El País*en titularra Cesar Antonio Molina Espainiako Kultura Ministro ohiak egindako deklarazioekin —“*Zapatero dijo que necesitaba una chica joven y más glamour*”, Zapaterok esan zuen neska gazte bat behar zuela eta glamour gehiago—, pentsatu nuen (diodana ez bada egia, zutabeak irents nazala bertan eta betiko) Zapatero neska txikien bila zebilela eta poeta ministroa zuela ema-xerkari edo bitartekari. Berlusconiaren garaiak ere baziren haiek, eta nire burutazioak bazuen bere logika: satiroaren parranda panparroiak egunero ziren hedabideetako portada.

Albistearen barrukoa irakurri beharra zegoen jakiteko zerk sortua zen Zapateroren kabitu ezin erotikoa: bila zebilen ministro berria izateko nahi zuen neska gazte glamourduna. Horrela ohartu nintzen lizuna titularraren erredakzioa zela, ez nire zoroa.

Zertarako etsaiak, ministro ohia eta *El País* bezalako lagunak hain hurbil izanda?, hori ere pasatu zitzaidan burutik.

Anjel Lertxundi (moldatua)  
Berria, 2014-05-09

- 1) Zer pentsatu zuen Lertxundik *El Paíseko* titularra irakurrita?
  - a) Dioena ez bada egia, zutabeak irents dezala bertan eta betiko.
  - b) Neska txikien xerka edo bila zebilela Zapatero.
  - c) Poeta ministro baten xerka edo bila zebilela Zapatero.
- 2) Testuaren arabera, adierazpen hauetatik zein EZ da egia?
  - a) Zapatero ministro berri baten bila zebilen garaian, Berlusconiaren parrandak maiz ziren hedabideetako portada.
  - b) Idazlearentzat, egunkariko titularra ez dago ondo ulertzerik barruko testua irakurri gabe.
  - c) Ministro ohiak bere adierazpenekin Zapateroren kabitu ezin erotikoa salatu nahi zuen.
- 3) Honako zein adierazpenekin dator bat Lertxundiren pentsamendua?
  - a) *El País* egunkariko titularraren erredakzioa lizuna da zinez.
  - b) Zapatero eta Berlusconi, Berlusconi eta Zapatero, biak antzekoak.
  - c) Zapaterok etsai eta lagun ditu ministro ohia eta *El País*.



## UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2014KO EKAINAREN 2A)

### 2. TESTUA

#### Topaketa Bruselan

Gizaseme larri bat auto ederrean zebilen Bruselan, jira batera eta bira bestera, lagunekin bildu beharreko puntua inola arraio aurkitu ezinik. Ernegatu zen, bazterrera geratu zen, begira jarri zen... Eta begira zegoen, eta denbora bazihoan, eta biderik ez zitzaion ageri... Hartan, erabaki zuen norbaiti galdetu egin beharko ziola, trantze hartatik irtenenean. Eta hara dama bat tokatu parean.

—Aizu, aizu... Lagunduko al zenidake, mesedez? Bruselan zeharo arrotz nabil, hamaiketan hitzordua dut lagunekin, eta, joan deneko ordu erdian, nondik jo ez dakidala nago, ataka beltzean, beranduturik.

—Nola ez ba?—erantzun zion andre oinezkoak—. Lagunduko dizut, ahal dudan bezainbat. Auto batean zabilta zu atzera-aurrera Bruselan, hiriaren erdigunetik bost kilometrora doi; zehatz esateko, 50-51 ipar latitudean zaude une honetan, eta 4-21 mendebalde luzeran.

—Zu, kasualitatez —gizonak orduan—, ez zara ba ingeniaria izango?

Eta:

—Bai; ingeniaria nauzu, bai. Ene bai! Nola demontre asmatu duzu!?

—Oso erraz, horra. Esan didazun guztiguztia teknikoki xuxena izango zen noski; praktikoki, baina, alferrikakoa. Alferrikakoa, kuantu! Begira: nik galduta segitzen dut, berandu ikusiko ditut

(ikusten badituz) lagunak, eta nola baliatu ez dakit zuk emandako informazioa.

—Bakoitzak bere astoari aurre... —andreak derrepente—. Zu, jauna, inondik ere, politikaria zara, ala?

—Hara orain, berriz! —gizasemeak hortzargi—. Halaxe naiz ba: politikaria... Ai ene bada-ta, nola antz eman didazu!?

—Bistako da ba, gizona —errematatu zuen damak bien arteko topaketa xeble hura—; ondo bistako denez, alajainkoa. Batetik, ez dakizu non zauden eta, are gutxiago, nora zoazen; bestetik, bete ezin duzun hitza eman zenien lagunei; eta, azak ontzeko, orain arazoa beste nork edo nork konpondu zain zaude... Hain zuzen, niri galdera egin aurreko egoera berberean zaude, bai horixe; orain, ordea, auskalo zein arrazoi arraro harrigarri medio, zer!?, eta badirudi errua nirea dela; nik (eta ez zuk) eragin dudala nahaste-borraste hau guztiau. Arraio tximista!

Atzenean behintzat, adio elkarri uzkur esanik harturik izango zuten gero zein zeinek beren eskualdea; hori bai, *arima apartatuta, larruan azala, txakurra ta katua balira bezala*.

Bizargorri, *Diario vasco* (2014-04-30)



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK  
(2014KO EKAINAREN 2A)**

**4. Testuaren helburu nagusia da ....**

- a. Bruselako politikarien bizimodu korapilatsua nabarmentzea.
- b. Bruselako trafiko bihurriari buruzko topikoekin pasarte komikoa kontatzea.
- c. emakumeen eta gizonezkoen elkarriketetan gertatzen diren ohiko akatsei irri egitea.
- d. bi pertsonaien lanbideei buruzko topikoak alderatu eta pasarte umoretsua osatzea.

**5. Nolako da andre oinezkoak auto gidariari emandako informazioa?**

- a. Ez erabat zuzena, gidaria Bruselaren erdigunetik bost kilometrora zuzendu du eta.
- b. Erabat zuzena baina desegokia, solaskideari ez baitio ezer argitu.
- c. Oso teknikoa eta praktikoa, edozein gidari bideratzeko guztiz zehatza.
- d. Egokia izan arren, oso azalpen korapilatsua gertatu da eta gidaria berandu iritsi da hitzordura.

**6. Emakumearen argibideak entzundakoan, ....**

- a. gidaria ohartu da oso ibilbide luze eta bihurria dela eta ez dela garaiz iritsiko.
- b. politikaria konturatu da solaskideak berak baino gutxiago zekiela eta alferrik ari dela.
- c. gidaria jabetu da hobe duela erdigunean galdetzea, han bizi baitira bere lagunak.
- d. politikariak pentsatu du nekez iritsiko dela Bruselako lagunekin duen hitzordura.

**7. Zer egozten diote bi solaskideek elkarri?**

- a. Bakoitza bere lanbidean murgilduta bizi dela, beste ezeri erreparatu gabe.
- b. Bata zein bestea ez direla gai solaskidearen beharrak aintzat hartzeko.
- c. Biak erabat kutsatuta daudela norberaren lanbideko jokaeraz.
- d. Bien prestakuntza eta jakituria goi mailakoak direla baina erabilgarritasun gutxikoak.



## UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2014KO EKAINAREN 2A)

### 3. TESTUA

## Antzeko botikak, baina bata ehun aldiz garestiagoa

**J**oan den hilean, konkurrentzia garbitasunez egin dadin arduratzen den Italiako erakundeak 92 eta 90,5 milioi euroko isun bana ezarri die Roche eta Novartis enpresa farmazeutikoei. Konpainia biek akordioa egin zuten Rocheren botika bat (Avastin) baztertzeko, Novartisek ekoizitako beste baten (Lucentis) mesedetan. Sendagai biak oso antzekoak dira, baina Avastin askoz merkeagoa da.

Lucentis eta Avastin endekapen makular hezearen tratamendurako erabil daitezke. Gaitzaren izenak ez dizue askorik argituko zuetako gehienoi, baina begietako gaixotasunik zabalduenetako bat da edadeko jendearengan. Sendagai biek daukate antzeko eraginkortasuna haren aurka; bigarren mailako ondorioak ere, parekoak. Baina Avastin, hau da, bietan merkeena, ez dago baimenduta endekapen makularra tratatzeko, merkaturatu duen konpainiak ez baitu horretarako baimenik eskatu; koloneko minbiziari aurre egiteko besterik ezin da saldu. Horrek, noski, alferreko gastua eragiten die, bai erakunde publikoei bai gaixoei eurei. Italiako Konkurrentziaren Agentziaren arabera, herrialde horretako osasungintza publikoak behar baino 45 milioi euro gehiago gastatu zuen 2012an Roche eta Novartisen arteko akordioaren erruz. Eta kopuru hori 600 milioiraino puztu liteke etorkizunean, kalkulatu dutenez.

Europako Kontsumitzaileen Elkarteak, BEUCek, eskutitz bat igorri dio Europako Batzordeko presidenteordeari, Joaquín Almunia bilbotarrari, Italian egin denaren pareko ikerketa egin dadin EB osoan. Euskal Herriari dagokionez, Frantziako zein Espainiako estatuetan Italiako egoera bera dago, baina lehenbizikoak laster baimendu dezake Avastin erabiltzea endekapen makular hezea tratatzeko. Esan behar da Lucentis injekzio baten prezioa 900 eurotik gorakoa dela Frantzian (1.100era irits daiteke); Avastin, batez beste, 30 aldiz merkeagoa da.

Espainiako Estatuan aldea handiagoa da: ehun aldiz garestiagoa da Lucentis (900 euro inguru injekzioko) Avastin baino. Oraindik orain, OCU kontsumitzaile elkarteak gutuna bidali dio Madrilgo Osasun Ministerioari alferreko gastuari amaiera eman diezaion eskatuz. Bruselak, Madrilek eta Parisek italiar bidea hartu eta isunak jarriko dituzten jakiteko goiz samar da oraindik.



EUSKARA ZERBITZUA

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK  
(2014KO EKAINAREN 2A)**

**8. Italian konkurrentzia garbitasunez egin dadin arduratzen den erakundeak ...**

- a. ez deritzo egoki bi enpresa farmazeutikok antzeko sendagaiak ekoizteari.
- b. isuna ezarri die bi enpresei ados jartzeagatik.
- c. isuna ezarri dio Novartis enpresari Lucentis garestiegi merkaturatzeagatik.
- d. isuna ezarri dio Rocheri Avastinen prezioa jaisteagatik.

**9. Rochek eta Novartisek antzeko bi sendagai dituzte salgai. Hala ere, ...**

- a. Lucentisek eta Avastinek ez dute berdin eragiten bigarren mailako ondorioetan.
- b. Lucentis bakarrik da eraginkorra endekapen makular hezea tratatzeko.
- c. Avastini ukatu egin diote zenbait gaitz tratatzeko baimena.
- d. bi enpresen hitzarmenak ezohiko gastua eragin dio osasungintza publikoari.

**10. Zer lortu nahi luke Espainiako OCU kontsumitzaile-elkarteak?**

- a. Botikek Osasun Ministerioari eragindako alferrikako gastua murriztea.
- b. Madrilgo gobernuak enpresa farmazeutikoei isuna jartzea, Italiak egin duen bezalaxe.
- c. Madrilgo gobernuak Avastin baimentzea, Frantziak oraintsu egin duen bezala.
- d. Avastinen eta Lucentisen prezioak berdintzea.

**IRAKURRIAREN ULERMENA: ERANTZUN-TAULA**

|   |   |   |   |    |
|---|---|---|---|----|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5  |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK  
(2014KO EKAINAREN 2A)**

**3. ARIKETA: IDAZLANA**

Euskara batuan egin behar duzu idazlana, eta 250 hitz izan behar ditu gutxienez. A edo B aukera hautatu behar duzu, eta, aukera horietako bat garatzeko, aukeran dituzun gaitako bat hartu behar duzu (nahi duzuna, zerrenda osoan). Ezinbestekoa da gai horri ongi lotzea.

**A) Unibertsitateko irakasle-talde bat aldizkari bat** ari da argitaratzen unibertsitateko ikasleentzat, eta zure jakintza-arloko gairen baten berri eman dezazun eskatu dizute artikulu batean. Gogoan izan zabalkunde-lanean ari zarela (ez testu akademikoak prestatzen). Zeure iritzia ere plazaratu dezakezu.

**B) Eskolako apunteak** prestatzen ari zara, eta gai baten inguruko azalpenak idatziz eman nahi dituzu, ikasleen eskura jartzeko. Gai bat orokorki azaldu eta hainbat zehaztasun emango dituzu, ikasleei azalpen argiak emateko.

| ARLOA             | GAIK (zure arloko bi gaitako bat aukeratu behar duzu)            |   |
|-------------------|--|---|
| Arkitektura       | Nola hazi behar luke hiriak?                                     | Katedralen eraikuntza.  |
| Artea             | Zer teknika erabiltzen du gaur egun arteak?                      | Ordenagailu bidezko irudigintza.                                    |
| Biologia          | Immunitatea. Immunitate naturala eta artifiziala. Immunoeskasia. | Proteinak, karbohidratoak eta lipidoak.                             |
| Ekonomia          | Monopolioaren esanahia ekonomian.                                | Ondarea eta egoera-balantzea.                                       |
| Filologia         | Ahozko eta idatzizko hizkuntza.                                  | Literatura eta itzulpena.   |
| Filosofia         | Pentsamendu moralaren oinarriko kontzeptuak.                     | Logika eta logikaren historia eta Filosofia.                        |
| Fisika            | Eremu eta potentzial elektrikoak.                                | Zer da fisika kuantikoa?  |
| Geografia         | Europar Batasuna gaur eta etorkizunari begira.                   | Hiri-geografia.   |
| Geologia          | Plaken tektonika. Zer dira lurrikarak?                           | Zer aztertzen du kristalografia? Zer eta nolakoak dira kristalak?   |
| Gizarte-zientziak | Demografia dinamikoa.  | Demokrazia munduan gaur egun.                                       |
| Heziketa fisikoa  | Jarduera fisikoaren garrantzia umeen garapenean.                 | Jarduera fisikoaren onura psikologikoak.                            |
| Historia          | Erreforma protestantea.  | Nafarroako erresuma.  |
| Informatika       | Objektuei zuzendutako programazioa.                              | Algoritmoen konplexutasuna.   |
| Informazioa       | Emakumearen irudia publizitatean: genero-arazoak.                | Kazetaritza digitala.   |
| Kimika            | Kimika eta ingurumena.   | Taula periodikoa.   |
| Matematika        | Deribatuak eta funtzioen grafikoak.                              | Koordenatu kartesiarrak eta polarrak.                               |
| Osasuna           | Odol-zirkulazioaren eta bihotzaren fisiologia.                   | Medikuntza "ofiziala" eta "naturala": zer du bakoitzak on eta txar? |
| Pedagogia         | Irakaskuntza Euskal Herrian.                                     | Hezkuntzaren alde soziala.  |
| Psikologia        | Balio dute gaur egun Freud-en teoria eta ikuspuntuak?            | Psikologoa eta psikiatra: aldeak eta parekotasunak.                 |
| Teknologia        | Ordenagailuak gaur eguneko zereginetan.                          | Makina-erreminta.   |
| Zuzenbidea        | Abortuaren legea.  | Oinordetza Zuzenbidea Euskal Herrian.                               |



**EUSKARA ZERBITZUA**

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK  
(2014KO EKAINAREN 2A)**

**ARLOA:**

**IDAZLANAREN IZENBURUA (GAIA):**

**AUKERA (A edo B):**

eman ta zabal zazu



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

**EUSKARA ZERBITZUA**

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK  
(2014KO EKAINAREN 2A)**



eman ta zabal zazu



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

**EUSKARA ZERBITZUA**

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK  
(2014KO EKAINAREN 2A)**



EUSKARA ZERBITZUA

UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2014KO EKAINAREN 2A)

EZ IDATZI EZER ORRIALDE HONETAN AZTERTZAILEEK ERABILTZEKO ORRIA DA

UPV/EHUko EUSKARA-PROBA. ZUZENKETA-ORRIA (1):

AZTERKETARIA: ..... NAN: .....

Zuzenketa-orria

Aukera anitzeko galderen proba

|                   |          |                   |
|-------------------|----------|-------------------|
| Zuzenak:          | Okerrak: | Zuriak:           |
| GAI ( $\geq 32$ ) |          | EZ GAI ( $< 32$ ) |

Irakurmena

|                  |          |                  |
|------------------|----------|------------------|
| Zuzenak:         | Okerrak: | Zuriak:          |
| GAI ( $\geq 6$ ) |          | EZ GAI ( $< 6$ ) |

Idazlana

|     |        |
|-----|--------|
| GAI | EZ GAI |
|-----|--------|

AZTERKETA IDATZIA: GAI / EZ GAI

Oharrak

Lehen zuzentzailea

Bigarren zuzentzailea

AHOZKO AZTERKETA

|     |        |
|-----|--------|
| GAI | EZ GAI |
|-----|--------|

Oharrak

1. aztertzailea

2. aztertzailea

3. aztertzailea



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK  
(2014KO EKAINAREN 2A)**

**UPV/EHUko EUSKARA-PROBA. ZUZENKETA-FITXA (2)  
<EZGAI> DIREN AZTERKETETAN BETETZEKO**

Azterketaria: .....  
(Markatu X batekin azken zutabeen zein arlotan ez den gai azterketaria)

**IDATZIA**

| Atala        | Oharrak   | Irizpideak (AKTA) | (X) |
|--------------|---|-------------------|-----|
| Edukia       | ez dio heldu emandako gaiari                          | 4.2.3. (a)        |     |
| Moldea       |   | 4.2.3. (b)        |     |
|              | esaldi sinpleegiak; gutxi idaztea                     |                   |     |
|              | erregistro desegokia                                  |                   |     |
|              | joskera desegokia                                     |                   |     |
|              | lexiko desegokia                                      |                   |     |
|              | lanaren egituraketa eskasa (kohesioa eta koherentzia) |                   |     |
| Zuzentasuna  |   | 4.2.3. (c)        |     |
|              | ortografia gaizki                                     |                   |     |
|              | euskara batua ez ezagutzea edo errespetatzea          |                   |     |
|              | deklinabideko huts nabarmenak                         |                   |     |
|              | aditza gaizki erabilia                                |                   |     |
|              | joskera okerra  |                   |     |
| Akatsak      |   | 4.2.3. (d)        |     |
|              | mezua ulergaitz bihurtzen dute                        |                   |     |
|              | akats larriak eta ugari                               |                   |     |
| Beste batzuk |   |                   |     |

Oharrak:

**AHOZKOA**

| Atala        | Oharrak                                       | Irizpideak (AKTA) | (X) |
|--------------|---|-------------------|-----|
| Azalpena     |   | 4.3.2. (1.a)      |     |
|              | jario falta                                   |                   |     |
|              | ez du azalpena ongi antolatzen                |                   |     |
|              | ez da gai azalpen zehatzak emateko            |                   |     |
| Zuzentasuna  |   | 4.3.2. (2.a)      |     |
|              | egitura okerrak edo traketsak erabiltzen ditu |                   |     |
|              | ahoskera eskasa                               |                   |     |
| Moldea       |   | 4.3.2. (3.a)      |     |
|              | ez da gai euskara batuan jarduteko            |                   |     |
|              | ez da gai hizkera zaindua erabiltzeko         |                   |     |
| Beste batzuk |   |                   |     |

Oharrak:

eman ta zabal zazu



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

**EUSKARA ZERBITZUA**

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK  
(2014KO EKAINAREN 2A)**